

JO KONTRAFABORE!

1

Gure plazetan bada
kirol ta folklore,
dantza ta umore;
norberak irabazi
ezkero, dotore.
Sarri ez da kontua:
indar, ez kolore,
gure frontoi-plazetan
hamaika traidore!
Ez al dakizu zer dan
“Jo kontrafabore?”

2

Danak gura dabena
da irabazia,
hor dago grazia!
Horrek menderatzen dau
munduko plazia.
Kontrafabore dabil
kristau errazia,
beti kontra bai dauka
munduko haizia;
jokoa euki behar
ondo ikasia.

3

Hemen irabazteko
behar da jokatu,
burua nekatu;
eta geure gurutza
gogoz besarkatu.
Jokalariak asko
behar dau ukatu,
azkenian txapeldun
nahi badau geratu;
kontrafabore barik,
ezin eskuratu

4

Hemen zerua eta
gero be zerua,
ez da segurua;
gizona beti gizon
ta ez aingerua.
Nora heldu daiteke
grinen bezerua?
Gizon baino gehiago
titiriterua...
Ez da luzarorako
horren panderua.

5

Errez deitzen deutsogu
 alkarri "tontua",
 a zer talentua!
 Beti inor gixajo
 ta neu gizontua.
 Bizia jokatzen da
 hauxe da kontua,
 ea gero norentzat
 dan azken tantua!
 Aurrez txapela jantzi?
 Hau pulamentua!

7

Hortxe daukagu danok
 jokoan txapela,
 bestetan bezela,
 gizona ez da dana
 hautsa ta ustela.
 Udazkenian datoz
 frutu edo orbela,
 bakotxak erein daunaz
 konforma daitela;
 bakotxak jokatzen dau
 bere kiniela.

6

Gure kristau jokia
 ez doa galtzera,
 Jesus dau aukera:
 Galdu ebalakoan,
 txapeldun da Bera.
 Norbere ahaleginez ta
 Jainkoaz batera,
 kontrafabore dabil
 jo ta ke aurrera;
 hau sinistu ezkerro,
 tontoak? Bai zera!

8

Jaun Epaile bakarrak
 inoan behin baten:
 "Lehenengoak azken,
 eta azkenengoak
 gero dira lehenen.
 Ez erronkarik bota
 ordua baino lehen,
 kontrafaborek ez dau
 hain txarto urteten...
 Juezak dauka beti
 azken hitza hemen.